

5/2021 Jarraibidea, abenduaren 22koa, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarena, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak araututako kooperatibei maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua aplikatzeari buruzkoa (8/2021 Errege Lege Dekretua, arlo sanitarioan, sozialean eta jurisdikzionalen presako neurriak hartzeari buruzkoa), urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak aitortutako alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoa; errege-dekretu horrek alarma-egoera deklaratu zuen, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

2020ko ekitaldian, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusi honek jarraibide batzuk eman zituen, COVID-19ak sorrarazitako pandemiaren ziozko krisiaren ondorioak arintzeko xedez, gure ordenamendu juridikoan behin-behinean onartutako neurrien zerga-irismena zehazteko eta, kasu batzuetan, argitzeko. Neurri horietan, besteak beste, ondokoak aipatuko ditugu: 7/2020 Jarraibidea, uztailaren 1ekoa, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarena, apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemaileari buruzkoa (dekretu horrek COVID-19aren osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriak eman zituen); ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemaileari buruzkoa (dekretu horrek birdoitzeko zerga-neurri batzuk eman zituen Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean, COVID-19aren pandemiari lotuta) bai eta COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiri lotutako zerga-izaerako beste alderdi batzuei buruzkoa ere.

Uztailaren 1eko 7/2020 Jarraibide horretan, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeari lotuta dauden eta zerga-arloan babestuta dauden kooperatibei aplikatu beharreko neurri gisa, xedatu zen, aldi baterako, 2020ko abenduaren 20ko Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 72. artikuluan jasotako kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari atxikitako zenbatekoen erabilera malgutzea, Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriak hartzen dituen apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikulua jasotako helburuen arabera, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak 2020ko maiatzaren 26ko txostenean esandakoa aintzat hartuta.

Horri dagokionez, osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-arloan, premiazko neurriak onartu zituen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko helburuz, alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoak, kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari atxikitako zenbatekoen erabileraren malgutzea luzatu zuen behin-behinean, 2021eko abenduaren 31ra arte, COVID-19ak sorrarazitako ondorioak arintzeko helburuz, arestian esandako apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikulua hasiera batean ezarri bezala.

Maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren Zioen Azalpenean adierazitako esanguran interpretatu behar da malgutze hori, pandemiaren hasieratik hainbat eremutan ?ez soilik osasun-arloan? hartutako neurrietako bat bezala, (bereziki, ekonomia- eta gizarte-arloan), alarma-egoera indarrean egon den aldiari lotuta. Neurri horiez gain, alarma-egoeraren indarraldiri lotuta egon ez diren beste batzuk aipatu behar ditugu, era berean, SARS-CoV-2 birusak sorrarazitako pandemiak gizarte- eta ekonomia-ehunean izan dituen ondorio kaltegarriak arintzeko asmoz hartu baitira, eta, horrenbestez, neurri horietako batzuk luzatu egin behar dira lehen esandako ondorio kaltegarriek irauten duten artean.



Ildo horretan, kooperatiba-heziketa eta sustapenerako ekarpenaren erabilera 2021eko abenduaren 31ra arte ohiz kanpo behin-behinean malgutzeko erabakiak COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio kaltegarriak arintzeko helburu horri erantzuten dio.

Bestalde, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen mende dauden kooperatibei dagokienez, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen 2021eko irailaren 8ko txostenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeari lotutako kooperatiba-sozietateei osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-arloan, premiazko neurriak onartu zituen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko helburuz, alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoa, zelan aplikatu behar den ebazteko, ezartzen da bertan maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua 1. eta 2. ataletan araututakoa Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak xedatutakoari jarraiki arautzen diren kooperatibei ere aplika dakiekeela (kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokionez).

Azaldutako guztia aintzat harturik,

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Zerga-arloan babestutako kooperatibak. Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikulua jasotzen dituen kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren zenbatekoak osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-arloan, premiazko neurriak onartu zituen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko helburuz, alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoak, jasotako neurriei aplikatzea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 12.3 artikulua xedatzen duenez, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68 bis artikuluan (orain indarrean dagoen abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikulua) ezarritako kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari atxikitako zenbatekoak manu horretan araututakoez besteko helburuetan erabiliz gero, zerga-arloan babestutako kooperatiba-izaera galduko da.

Aurrekoaz gain, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 19.2 artikulua, heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako zein interes publikoa duten beste helburu batzuetarako nahitaezko kontribuzioa gastu gisa kengarria izateko betekizunez diharduenak, xedatzen duenez, ekarpen hori onetsitakoez besteko helburuetan erabiliz gero, zerga-arloan babestutako kooperatibaren izaera galtzeaz gain, bidegabe erabilitako zenbatekoa ere ez da sarreratzat hartuko.

Ondorio horietarako, osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-arloan, premiazko neurriak onartu zituen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko helburuz, alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoak, ohiz kanpoko neurri bat arautzen du kooperatiba-heziketa eta sustapenerako funtsaren erabilera behin behinean malgutzeko, COVID-19aren ondorioak arintzeko



helburuz, eta horrek xedatutakoari jarraiki, 2021eko abenduaren 31ra arte, funts hori, osorik edo horren zati bat, ondoko helburuetan erabil daiteke:

a) Finantza-baliabide gisa, kooperatibari likidezia emateko, baldin eta funtzionamendurako behar badu; kasu horretan, horrela erabilitako zenbatekoaren %30, gutxienez, kooperatibak urtero eskuratzen dituen erabilera askeko emaitzetatik itzuli beharko da, gutxienez, harik eta funtsa salbuespenez erabiltzeko erabakia hartzeko unean zeukan zenbatekora heldu arte, gehienez ere, 10 urteko epean.

b) COVID-19ak sorrarazitako osasun-krisia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduera, dela bere ekintzen bidez, dela beste erakunde publiko edo pribatu batzuei dohaintzak eginez.

Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen 2021eko irailaren 8ko txostenak dioenarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeari lotutako kooperatiba-sozietateei osasun-, gizarte- eta jurisdikzio-arloan, premiazko neurriak onartu zituen maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua, SARS-COV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko helburuz, alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren aplikatu beharrekoa, bertan ezartzen da horren aplikazioari buruz maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuaren 12. artikuluen 1. eta 2. ataletan araututakoa aplikatu dakiekeela Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak xedatutakoari jarraiki arautzen diren kooperatibei (kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari gagozkiola).

Horrenbestez, azken batean, legez onartutako helburu bat betetzeko xedea denez, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan (aurreko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68 bis artikulua) jasotako kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren zenbatekoak maiatzaren 4ko 8/2021 Errege Lege Dekretuak ezarritako helburuetara bideratzen dituzten kooperatibek, manu horretan bertan eta Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen 2021eko irailaren 8ko txostenak dakartzan baldintzetan, ez dute zerga-babesa duten kooperatiba-izaera galduko arrazoi horregatik. Gainera, kasu horietan ere ez da ulertuko horrela erabilitako zenbatekoak kooperatibarentzako sarreratzat hartzen direnik.

Bilbon, 2021ko abenduaren 27a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: Iñaki Alonso Arce.